

Koordinatzailea

M. Karmele Urtiaga

Batzorde antolatzailea

Martín Arriolabengoa

Ane García-Artola

Ana Pascual

GEOLOGIA SAILA

Zientzia eta Teknologia Fakultatea
UPV/EHU

Entitate laguntzaileak




Geoparkea

Euskal Kostaldea - Costa Vasca



Euskal Herriko Geologiako XV. Olinpiada 2023ko martxoak 3



Argazkiak: Flysch Beltzeko hainbat ezaugarri geologiko

Izen-ematea martxoaren 2a arte
Proba teorikoa, praktikoa eta
finala: Martxoak 3

Unibertsitatea
del País Vasco



Euskal Herriko
Unibertsitatea

ZIENTZIA
ETA TEKNOLOGIA
FAKULTATEA
FACULTAD
DE CIENCIA
Y TECNOLOGÍA

Helburuak

Bertan bizi garen arren, oraindik ere, gizateriaren gehiengo batentzat guztiz ezezaguna da Lurra. Geologiaren laguntzarekin gure Planeta ezagutzen eta bertan gertatu eta gertatzen diren prozesuak ulertzen ikasten dugu.

Geologiako Olinpiaden bitartez DBHko 4. mailako eta Batxilergoko ikasleengan zientzia honen ezagupena garatu nahi dugu, bere aplikazioak gaur egun duten eta etorkizunean izan dezakeen eraginaz ohar daitezzen.



Parte-hartzaileak

Parte hartu ahal izango dute 2022/2023 ikasturtean Euskal Autonomia Erkidegoko DBH-ko 4. mailako edo batxilergoan matrikulatutako ikasleak, 19 urte bete ez dutenak.

Izen-ematea

Parte hartu nahi duten ikastetxeek izena eman dezakete edo zuzenean eskaera-orri bat bidali (karmele.urtiaga@ehu.eus) posta elektronikora. Eskaera-orrian agertu behar diren datuak ondorengoak dira: ikasleen eta irakaslearen izen-abizenak eta NAN zenbakia, ikastegiko izena eta helbidea, harremanetarako e-mail bat eta ikastetxeko zuzendariaren oniritzia.

Izen-emateko epea 2023ko martxoaren 2an bukatuko da

Garapena

Proba teorikoan DBH-ko laugarren mailako eta Batxilergoko edukietatik ateratako 50 test-motako galderak izango dira. Proba praktikoa 12 laginekin osatuta egongo da eta arroka, mineral eta fosil ezberdinak identifikatu beharko dira. Galderak erantzun bakarreko test motakoak izango dira.

Ondoren, atsedendaldi baten ostean, emaitza onenak lortu dituzten bost ikasle aukeratuko dira eta galdera-erantzunen joku bat egingo da parte hartu duten ikasle guztien aurrean. Denei galdera berdinak egingo zaizkie eta akatsak batu egingo dira. Bost akats egiten duen ikaslea kanporatu egingo da, ikasle bakarra gelditu arte.

Hurrengo urratsak

Txapeldunak Euskadi ordezkatzeko du Olinpiadako fase nazionalen. Fase nazional eta internazionalari buruzko informazio gehiago lortzeko sartu asept-eko web orrian: <http://www.aepect.org>

Proben tokia eta data:

Tokia: Zientzia eta Teknologia Fakultatea UPV/EHU. Leioako Kanpusa. Sarriena auzoa z.g. Leioa (Bizkaia).

Data: 2023ko martxoak 3. Atal teorikoa (10:00), praktikoa (10:45), eta kanporaketa-jokua (12:00).

Baldintzak: Froga era presentzialean baino ez da egingo.

Sariak

Olinpiada irabazten duten ikasleek, Olinpiadako fase nazionalera joateko aukera izango dute gasturik gabe. **Euskal Kostaldeko Geoparkeak** lehen hiru ikasle eta beraiekin joan daitekeen beste batentzako ere flysch-a ikusteko itsasontziz bisita gidatua eskaintzen die. Gainera, Zientzia eta Teknologia Fakultateak diploma bat emango die parte hartu duten ikasle guztiei.